

## BERDINTASUN FOROAREN KOMUNIKATUA AZAROAK 25

*Azken urte hauetan, emakumeen aurkako indarkeria, gizartearen gaitz handienetakoa bilakatu da, datuek horrela adierazten dute. Azken hamarkadan, 700 emakume baino gehiago erailak izan dira Estatuan. Gehienetan, beraiek maite izan dituzten bikoteek erailak izan dira.*

*Euskal Autonomi Erkidegoan, aurreko bi urteetan genero-indarkeriak biktima bihurtutako emakumeak, 5.000 izan dira.*

*Badirudi urruneko gertakariak direla, baina Beasainen abuztua bitartean 11 salaketa jarri dira, eta 13 izan ziren joan den urtean.*

*Baina salaketa jartzen duten emakumeek bakarrik sufritzen al dute? Zoritxarrez ez, gutxiengoak dira horiek. Emakume askok ixilean jasaten dute, beldurrez isolaturik. Sarritan bizitza perfektua daramatela adierazten digute, baina perfekzio horrek, okerren bat egingo dutenaren ikara darama, oker txikiena ere aitzakia izan daitekeelako bikote "perfektuak", berriz iraintzeko.*

*Irainketa baten ondoren "sentitzen dut", "barkatu", "egun txar txarra izan dut eta ez da berriz gertatuko" bezalakoak datoz gehienetan.*

*Salaketa jarri dutenak edota biktima bihurtu ez diren emakumeak, bakarrik ez daudela jakin behar dute, geure eskua luzatzen diegula laguntzeko, beldurrik gabe eta askatasunean ibilbidea egin dezaten. Horregatik, Foroan parte hartzen dugun emakumeok, Udala eta herritarren aurrean honako puntu hauek adierazi nahi genituzke:*

1. *Indarkeria jasaten duten emakumeak, bakarrik eta irainduak sentitzen dira eta berdintasun forotik laguntza eskaintzeko prest gaude.*
2. *Laguntza eskaintzeko, gizartean zailtasunak daude, norbere burua arriskuan jar daitekeela pentsatzen delako.*
3. *Guztion inplikazioa behar da laguntza eskaintzeko.*
4. *Ertzaintzari, generoan eta indarkeria jasandako pertsonen arretari buruzko formakuntza berezia duten agenteak ezartzea eskatu nahi diogu. 24 ordutan eskainiko den zerbitzua, aste osoan eta ertzain etxe guztietan.*
5. *Gai honen inguruko formakuntza eskatu nahi genioke Udalari, bai Foroan parte hartzen duten emakumeentzat eta baita herritar ororentzat ere.*
6. *Udalari etxez etxe informazioa banatzea proposatzen diogu.*
  - *Horrelako kasuetan laguntza eskaintzen duten erakundeen telefono zenbakiekin, emandako zerbitzuaren azalpen garbiekin...*
  - *Informazioa modu ulergarrian azaltzea beharrezkoa izango da (idatziz eta marrazkien bidez), helburua, guztiok gaiaren inguruko kontzientzia hartzea izango delarik.*